# I ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

**8.530**

**72/2004 FORU DEKRETUA, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Irabazteko Xederik gabeko Erakundeen Zerga-erregimenari eta Mezenasgoaren Zerga-pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak arautakoetan oinarrituta lehentasuna duten mezenasgo-jarduerak edo programak zehazten dira.**

Oraintsu onartu da Irabazteko Xederik gabeko Erakundeen Zerga-erregimenari eta Mezenasgoaren Zerga-pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Araua. Foru arau horrek lehentasuna duten mezenasgo-jarduerak edo programak finantzatzen sektore pribatuaren partehartzeari buruzko beste araudi bat ezartzen du.

Hain zuzen ere, aipatutako foru arau horretako 29. artikuluko 1. paragrafoak arautzen du Arabako Foru Aldundiak zehaztuko duela ekitaldi bakoitzerako lehentasuna duten mezenasgo-jardueren edo programen zerrenda foru arau horrek adierazitako interes orokorreko helburuei dagokien eremuan.

Arau horrek berekin dakar foru dekretu hau onartu beharra.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Hortaz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

**1. artikulua.- Xedea.**

Irabazteko Xederik gabeko Erakundeen Zerga-erregimenari eta Mezenasgoaren Zerga-pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak 29. artikuluan xedatutakoa garatzea du helburu dekretu honek.

**2. artikulua.- 2005ean lehentasuna izango duten jardueren zerrenda.**

Irabazteko Xederik gabeko Erakundeen Zerga-erregimenari eta Mezenasgoaren Zerga-pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak 29. artikuluan xedatutakoetarako, 2005ean ondoko jarduera edo programak izango dute lehentasuna:

a) Arabako Artium Fundazioa.

b) Santa María Katedrala Fundazioa.

c) Fernando Buesa Fundazioa.

d) Vitoria-Gasteizko Jazzaldiaren Elkartea.

e) San Prudentzio Lan Fundazioa.

f) Gorbeia, Valderejo eta Izkiko parke naturaletako ingurumen arloko berreskuratze, zaintze, ikertze eta zabaltze programetarako Arabako Foru Aldundiari emandako kopuruak.

g) Gesaltza-Añanako Gatz Harana Erabat Berreskuratzeko Plan Zuzentzailea garatzeko eta abian jartzeko Arabako Foru Aldundiari emandako kopuruak.

h) Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola.

i) Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa.

j) Arabako Arte Ederren Museoa.

k) Euskaltzaindia.

l) Euskalerriaren Adiskideen Elkartea.

m) Eusko Ikaskuntza.

n) Arabako Arkeologia Institutua, La Hoya herrixkan eta Buradon Gatzagako Eliza paleokristauan indusketak egiteko.

ñ) Urizaharreko Administrazio Batzarraren Anbarearen Interpretaziorako Museoa.

o) Baskonia Fundazioa.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

**8.530**

**DECRETO FORAL 72/2004, del Consejo de Diputados de 30 de diciembre, que determina las actividades o programas prioritarios de mecenazgo a los efectos de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de Régimen Fiscal de las Entidades sin fines lucrativos e Incentivos fiscales al Mecenazgo.**

Recientemente se ha aprobado la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo, la cual establece un nuevo marco normativo sobre la participación del sector privado en la financiación de actividades o programas prioritarios de mecenazgo.

En concreto, el apartado 1 del artículo 29 de la citada Norma Foral señala que la Diputación Foral de Álava establecerá, para cada ejercicio, una relación de actividades o programas prioritarios de mecenazgo en el ámbito de los fines de interés general a que se refiere dicha Norma Foral.

Dicho precepto determina la necesidad de aprobar este Decreto Foral.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

**Artículo 1.- Objeto.**

El presente Decreto tiene por objeto el desarrollo del artículo 29 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo.

**Artículo 2.- Relación de actividades prioritarias para el año 2005.**

Se declaran actividades prioritarias, a los efectos del artículo 29 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo, para el ejercicio 2005, las siguientes actividades o programas:

a) Fundación Artium de Álava.

b) Santa María Katedrala Fundazioa-Fundación Catedral Santa María.

c) Fundación Fernando Buesa.

d) Asociación Festival de Jazz de Vitoria-Gasteiz.

e) Fundación Laboral San Prudencio.

f) Cantidades entregadas a la Diputación Foral de Álava para ser destinadas por ésta a Programas de recuperación, conservación, investigación y divulgación ambiental de los Parques Naturales de Gorbeia, Valderejo e Izki.

g) Cantidades entregadas a la Diputación Foral de Álava para ser destinadas por ésta al Desarrollo y Puesta en marcha del Plan Director de Recuperación Integral del Valle de las Salinas de Añana.

h) Escuela de Artes y Oficios de Vitoria-Gasteiz.

i) Museo de Arte Sacro de Vitoria-Gasteiz.

j) Museo de Bellas Artes de Álava.

k) Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca.

l) Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

m) Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.

n) Instituto Alavés de Arqueología, para las excavaciones arqueológicas del poblado de La Hoya y de la iglesia paleocristiana de Buradón.

ñ) Centro de Interpretación del Ámbar de la Junta Administrativa de Peñacerrada.

o) Fundación Baskonia.

p) Deportivo Alavés Fundazioa.

q) Estatuko eta foru lurraldeetako organo eskudunak lehentasuna dutela adierazitako jarduerak, baldin eta horiek onartutako arauek ere Arabako Foru Aldundiak onartutako jarduerak ere onartzen badituzte.

**3. atala.- Ziurtagiriak.**

Irabazteko Xederik gabeko Erakundeen Zerga-erregimenari eta Mezenasgoaren Zerga-pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak 29. Artikuluan jasotako zerga onurak aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da zergadunak, dagokion zerga aitorpenarekin batera, ziurtagiri bat aurkeztea, non frogatzen den kenkari izan diren kopuruak lehentasuna duten jarduera edo programetan erabili izan direla.

Zergadunak emandako kopuruak hartu dituen entitateak eman beharko du aipatutako ziurtagiria.

2. artikuluko f) eta g) idatz-zatietan arautako egoeretan, idatz-zatiotan aipatzen diren ziurtagiriak Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak eman beharko ditu.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa. Arauak ematea.**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena ematen zaio foru dekretu hau aplikatu eta garatzeko beharrezko diren arauak emateko.

**Bigarrena. Indarrean sartzea.**

Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra foru dekretu honek eta 2005ean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko abenduaren 30a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

p) Fundación Deportivo Alavés.

q) Las actividades prioritarias declaradas por los órganos competentes del Estado y de los Territorios Forales, siempre que, en la normativa aprobada por los mismos, se reconozcan de forma recíproca las actividades aprobadas por la Diputación Foral de Álava.

**Artículo 3.- Certificación.**

Para poder aplicar los beneficios fiscales contemplados en el artículo 29 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo, será necesario que el obligado tributario aporte junto con la declaración del Impuesto correspondiente, una certificación en la que se acredite que las cantidades objeto de deducción se han destinado a las actividades o programas declarados prioritarios.

La referida certificación deberá ser expedida por la entidad receptora de las cantidades entregadas por el obligado tributario.

En los casos previstos en las letras f) y g) del artículo 2 anterior, la certificación a la que hacen referencia los dos párrafos anteriores deberá ser expedida por la Dirección de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera. Habilitación Normativa.**

Se autoriza al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la aplicación y desarrollo del presente Decreto Foral.

**Segunda. Entrada en vigor.**

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos para el año 2005.

Vitoria-Gasteiz, a 30 de diciembre de 2004.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**8.532**

**75/2004 FORU DEKRETUA, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontu egitura eta kontabilitate publikoaren plan orokorra onartzen dira.**

2004ko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, hirugarren xedapen gehigarriaren bitartez, baimena ematen dio Foru Aldundiari foru arau horretan jasotakoa garatu dezan; horretarako, aurrez txostena osatu beharko dute Arabako Lurralde Historikoan sendoen errotutako udal eta kontzeju elkarteek.

Hala, aipatutako udal elkarteak parte hartu du toki erakundeen aurrekontu egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra osatzeko xedez eratutako erakunde arteko batzordean, eta aldeko txostena egin du. Arabako Kontzejuen Elkarteak, berriz, ez du inolako eragozpenik adierazi horretarako ezarritako epean.

Hori hala izanik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak eta Toki Administrazioaren Saileko diputatuak proposatuta, Arabako Administrazioaren Aholku Batzordearen txostenarekin bat etorriz, Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bileran gaia aztertu ondoren,

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.- Arabako toki erakundeen aurrekontu egitura, Foru Dekretu honen 1. eranskinean agertzen dena, onartzea.

Bigarren artikulua.- Arabako toki erakundeen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, foru dekretu honen 2. eranskinean agertzen dena, onartzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Bigarrena.- Baimena ematen diot Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari foru dekretu hau garatu eta aplikatu ahal izateko behar diren xedapenak eman ditzan.

**8.532**

**DECRETO FORAL 75/2004, del Consejo de Diputados de 30 de diciembre, que aprueba la estructura presupuestaria y el plan general de contabilidad pública de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava.**

La Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, presupuestaria de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava, por medio de su Disposición Adicional Tercera, autoriza a la Diputación Foral para desarrollar reglamentariamente los preceptos en ella contenidos, previo informe de las Asociaciones de Municipios y de Concejos de mayor implantación en el Territorio Histórico.

En tal sentido, la referida Asociación de Municipios ha participado en la comisión interinstitucional constituida al efecto de elaborar la estructura presupuestaria y el Plan General de Contabilidad Pública para entidades locales y ha emitido informe favorable, mientras que la Asociación de Concejos de Álava no ha manifestado objeción alguna en el plazo concedido al efecto.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos y de la Diputada de Administración Local, de acuerdo con el informe de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava y previa deliberación del Consejo de Diputados en su sesión de hoy,

DISPONGO:

Artículo primero.- Se aprueba la estructura presupuestaria de las entidades locales de Álava, que figura como anexo 1 del presente Decreto Foral.

Artículo segundo.- Se aprueba el Plan General de Contabilidad Pública de las entidades locales de Álava, que figura como anexo 2 del presente Decreto Foral.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Segunda.- Se autoriza al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral